

Gotzon Barandiaran Arteaga

IDAZLEA

## Etxean otso

**E**txean otso eta kanpoan uso denari gaitz iritzi dio euskal tradizioak, bai, baina ez kanpoan uso izateagatik etxean otso izateagatik baino. Etxekoak egurtzen dituenari, etxean lanik egiten ez duenari, etxekoekin orroka aritzen denari, etxekoen esanei entzungor izaten denari, etxekoei gogor egiten dienari egokitu izan zaio kanpoan uso, etxean otso. Etxekoartekoekin krudeltasun osoz jokatu ahala kanpokoekin ezta baino gozoagoa denari. Bestela interpretatu dute Aingeru Epaltzak eta Anjel Lertxundik. Aingeru Epaltzak berripaper honen irailaren 6ko alean, euskarazko prentsak euskarazko kultura ez duela behar beste kritikatzeko kritikatu zuten, euskarazko prentsa osatzen duen komunikabide batean.

Anjel Lertxundik arrazoia eman zion euskarazko prentsa ere baden irailaren 9ko data zuen hartan. Epaltzak beste idazle baten errana hartu zuen argudioetarako makulutzat. Atxagak esan ei zuen gaurko bertsolariak musuka aritzen direla entzulearekin. Ez gara gu bertso-afari eta saio libre askotan elkarrekin egon orduan, gu egon garen askotan, entzulea lotsarazi zein haserrarazi egin izan baitituzte bertsolariek entzulea. Euskal prentsak ez dituela gure arteko aferen gaineko eztabaidarik pizten salatu du Epaltzak. Zer esan gura du, euskal prentsak zentsuratu egiten dituela iritziak euskarazko kulturarekiko kritikoak badira?



INIGO AZKONA

Kritikotasun ezaren bi adibide aukeratu zituen Epaltzak artikuluan. Bata Korrikan euskal preso politikoen argazkiak ateratzeak euskarazko prentsan kritika gehiago agertu ez izana eta bestea ikastolen mugimenduan dagoen barne krisiari buruz euskarazko prentsan kritika gehiago agertu ez izana. Dakigunarengatik, biak ere, afera erabat politikoak. Dakigunarengatik, bai batari buruz zein besteari buruz, dozena erditik gora artikulurentzako aitzakia izan zirenak. Esango nuke euskarazko kulturagintzan berdin euskalgintzan, urteak daroatzaten eragile askok autokritikan zutabetu direlako lortu dutela bizirautea.

Urteotan guztiotan agintean egon direnek euskarazko kultura jaso, gorde eta zabaltzeko lanean dabiltzan eragile askoren lana lagundu baino oztopatu egin dutenez, eragileok hormatzar hori gainditzeko pertikak eten barik berrasmatu beharrean egon dira eta berrasmatzeko ezinbestekoa izan da aurrekoaren akatsak, gabeziak eta okerrak zuzentzea. Eta gogoeta kolektibo horretan, euskarazko prentsa beti erabili izan da bozgorailutzat. Besterik da, berbarako EITBk, lehen EAJren eta orain PSEren ildoarekin bat ez datorrena isilaraztea. Horretaz ari badira, bat nator Epaltza eta Lertxundirekin. Zer diozue zuek, *Egunkaria* auziagatik torturatuak izan zinetenok? Kartzelaratuak izateko arriskuan zaudetenok? ■

« Euskarazko kulturagintzan berdin euskalgintzan urteak daroatzaten eragile askok autokritikan zutabetu direlako lortu dute bizirautea »

## HIRUKO TXIRIAN

Joxemari Ostolaza



Orkolaga Etxaniz. Gure alabaren bidez izaten nuen bere berri. Bere anaia Jon Mikel, haurtzaroan euskal izena zuen eskolako kide bakarra izan nuen pupitre lagun. Gure amaren azkenetan Donostiako Onkologikoan izan nuen aukera bere senarra Rober ezagutzeko, holako egoeratan gure ama hain atseginki hartua izan zen lekuan zerbitzari. Frantziako kartzelara bidaiatzen urteak daramatzanak, orain Aintzane du gose greban Espainiaratzeko arriskuari aurre egiteko uzten dioten era ia bakarrean diharduela. Aintzanearen aita zena eta haren anaia ere orain berrogeita bat urte ezagutu

## Aintzane

genituen preso, herri honetako zenbaitentzat bukatu ez den salbuespen egoeraren biktima. Inguru hurbilean presorik ez duenak nekez bizi lezake muturreko egoera horren gordina, bati bizimodua erabat aldatzen dion hori. Maitearen ausentziaz gain, urruntasunak sortzen dizkion arazo praktikoen gatibotasuna du bizimodu, bakarrik eraman beharreko zamaren preso, inoiz arintzen ez dena nahiz eta kasu onenean bere ingurua horretan saiatu. Hendaiaiko lagunak ari dira Aintzanearen aldeko elkartasun ekintzak burutzen, gose grebaren hotzen ikara hozkirriek erotu ez dezaten, herriminak gehiago kolpatu ez diezaion. ■